



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Lizitazioaren iragarkia

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Sukarrietan, 2024ko maiatzaren 8an

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragarri du lizitazio prozedura bat irekiko dela, lehiaketa publiko bidez, esleitzeke dauden **Pasaia, Derio eta Sukarrietako zentroak birmoldatzeko obretarako, honetarako: Zuzendaritza Fakultatiboa (Obraren Zuzendaritza - OZ, Obra Egiteko Zuzendaritza - OGZ eta Segurtasunaren eta Osasunaren Koordinazioa Obra gauzatzeko fasean - SOKO).**

Obren zuzendaritza fakultatiboa, bai obra zuzendaritza, bai obra gauzatzeko zuzendaritza eta bai segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa obra gauzatzeko fasean, arlo horretan eskumena duten teknikariek egingo dituzte, eta horretarako eskumen profesionalak izango dituzte, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearekin eta aplikatu beharreko gainerako araudiarekin bat etorritik.

Onartutako gauzatze proiektuak (I. eranskina), non eraikinaren eta egin beharreko obren datu zehatzak jasotzen diren, konfidentzialtasun akordio bat sinatu ondoren emango zaizkie lizitatzaileriei, eta obren zuzendaritza fakultatiboko zerbitzuaren esleipendunarentzat oinarri izango dira, jarduketa ezagutzeko eta lizitaziorako eskaintza egiteko. Proiektuak itxiztat jotzen dira, eta lizitatzailerak ez du horien edukiari buruzko aldaketarik aurkeztu behar.

2. GAUZATZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena bat etorriko da kontratatutako obrak gauzatzeko epearekin eta berme epearekin, obren azken likidazioa egin arte. Beraz, kontratuaren iraupena obrak gauzatzeko benetako epeari lotuta egongo da, eta obren gorabeherak eragina izango dute. Datu hori Pasaia, Derio eta Sukarrietako zentroak birmoldatzeko obrak gauzatzeko iragarkian zehaztuko da (II. eranskina).

Nolanahi ere, kontratua amaituko da lizitatzailerak iragarki honetan eskatzen den obraren azken dokumentazio guztia aurkezten duenean eta AZTIk adostasunez jasotzen duenean eta, berme aldiaren ondoren, obraren likidazioa egin eta onartzen denean eta azken ziurtagiria ematen denean.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa **ehun eta laurogei mila (180.000,00)** eurokoa da, BEZik gabe. Zenbateko horren barruan sartzen dira enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzearen ondorioz, bere gain hartuko dituen partida guztiak (prestazioen prezioa, gastu, aseguru, zerga eta tributu guztien zenbatekoa, etab.).

Proposamen ekonomikoak ezin izango du gainditu adierazitako gehieneko muga, eta 10.3 eranskineko eredia betez aurkeztu beharko da.

Obrak egiteko epea emanda, ez da prezioen berrikuspenik onartuko.

Ordainsari fakultatiboen ordainketak hileko obra ziurtagirien arabera egingo dira, eta horiek eman eta 60 eguneko epean egingo dira.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doikuntza teknikoa	%35
45001 ziurtagiria	%5
Hobekuntzak	%10

Eskaintza ekonomikoa: eskaintzarik baxuenari puntuaziorik altuena emango zaio, eta gainerako eskaintzei formula honetatik ondorioztatzen den puntuazioa emango zaie:

$$\frac{\text{Eskaintza baxuena}}{\text{Aurkeztutako eskaintza}} \times 50 \text{ puntu}$$

Hobekuntzen ataletan honako hauek baloratuko dira:

- Gainbegiratze eta kalitate kontrol handiagoa: eraikuntzako materialek eta metodoek proiektuaren espezifikazioak betetzen edo gainditzen dituztela ziurtatzea.
- Bateragarritasun plana gainbegiratzeko proposamena: obrak behar bezala egiten direla eta AZTIren jardura garatzen dela ziurtatzea.
- Arriskuen kudeaketa hobetua: eraikuntzan egon daitezkeen arriskuak identifikatzeko eta arintzeko estrategia proaktiboak ezartzea.
- Komunikazio eraginkorra: obran parte hartzen duten eragile guztien artean etengabeko informazio fluxua egotea, sustatzaileak, kontratistak eta azpikontratistak barne.
- Denborak optimizatzea: gauzatze epeak optimizatuko dituen lan plan bat proposatzea, kalitatea arriskuan jarri gabe.
- Jasangarritasuna eta efizientzia energetikoa: energiaren ikuspegitik jasangarriak eta efizienteak izango diren eraikuntza praktikak integratzea.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzaillearen eskaintza anormalki baxua dela jotzen bada, AZTIk dagokion justifikazioa egiteko eskatuko dio lizitatzailari.

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatzailleek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoa edo fisikoki AZTIren edozein zentrotan, lizitazio iragarkia AZTI Fundazioaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik **2024ko maiatzaren 23ko 12:00ak arte**.

Lizitatzailleek AZTIk Pasaian, Derion eta Sukarrietan dituen instalazioak bisitatu ahal izango dituzte, eskaintza aurkeztu aurretik jemezabal@azti.es helbidera jo eta hitzordua eskatuta.

Lizitatzailleek kontratuaren arduradunarengana jo dezakete informazio tekniko gehigarria eskatzeko:

Nori: Rogelio Pozo

Tel. 94 657 40 00

Helbide elektronikoa:

rpozo@azti.es

Honako eskaintza hauek ez dira onartuko: iragarki honen hirugarren puntuan ezarritako gehieneko prezioa gainditzen dutenak, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutenak, eta ingurumen, gizarte zein lan arloan –estatukoan nahiz nazioartekoan– aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ez dituztenak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne. Era berean, ez dira onartuko, justifikaziorik ezean, balio anormalak edo neurritz kanpokoak aurkezten dituzten eskaintzak, hau da, onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino %20 gutxiago edo edo hortik beherako zenbatekoak aurkezten dituztenak.

Lizitatzaileraren bat baztertzea erabakiz gero, AZTIk berariaz jakinaraziko dio baztertutako lizitatzaileri.

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 2 asteko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOAK

7.1 AZTIrekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak izan edo atzerritarrak izan, baldin eta kontratatzeke debekurik ez badute, puntu honetan eskatzen den dokumentazioa behar bezala aurkezten badute eta kontratuaren xede diren prestazioetarako eska daitekeen enpresa edo lanbide gaikuntza badaukate.

Era berean, AZTIrekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako erutzen diren enpresari elkarteak, eta ez da beharrezkoa izango hori eskritura publikoan formalizatzea harik eta kontratua haien alde esleitu arte.

Klausula honetan aipatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeke debekurik ezari buruzko zirkunstantziak kontratuak irauten duen bitartean bete beharko dira.

Esleipendunak 20 egun balioduneko epea izango du, ebazpena AZTI Fundazioaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako dokumentazio

hau aurkezteko (beste edozein gai www.azti.es webgunean argitaratutako kontratazioari buruzko barne araudian kontsultatu ahal izango da):

- I. Lizitatzaillearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, haren ordezkariak egiaztatzen duten dokumentuak: eratze eskritura edo agiria, Estatutuak edo fundazio egintza, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituztenak, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuak, pertsona juridiko motaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaillearen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen esleipendunak, atal honetan eskatzen den dokumentazioaren ordezkari, indarreko inskripzio ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango du. Inskripzio ziurtagiriarekin batera, esleipendunak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, dokumentuan jasotako zirkunstantziak ez direla aldatu adierazteko.

- II. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak: kontratu honek aipatzen duen esparruko urteko negozio bolumena, kontuan harturik amaitutako azken hiru ekitaldi ekonomikoetako bolumen handieneko urtean kontratu honek jasotzen duen zenbatekoaren zifrara iritsi beharko dela, gutxienez.

Urteko kontu onartuak eta Merkataritza Erregistroan gordailutuak aurkeztu beharko dira, baldin eta enpresaria erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresari indibidualek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute beren urteko negozio bolumena.

- III. Gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko agiriak: esperientzia edukitzea kontratu honen xedearen antzeko kontratuak egiten, eta azken hiru ekitaldi ekonomikoetan kontratu gehien gauzatu den urtean, gutxienez kontratu honen zenbatekoko kontratuak behar bezala gauzatu izana.

Hala badagokio, eskatzen den gaitasuna egiaztatzeko, azken hiru ekitaldi ekonomikoetan kontratu gehien gauzatu den urtean egindako lanen zerrenda aurkeztu beharko da. Zerrenda horretan, lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazi beharko dira. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira lan horiek; hartzailea subjektu pribatu bat denean, subjektu pribatu horrek egindako ziurtagiri baten bidez; edo, ziurtagiririk ezean, esleipendunaren adierazpen baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

- IV. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- V. AZTIren hornitzaileen jokabide kodearen betetze ziurtagiria, www.azti.es webgunetik jaitsi ahal izango dena.
- VI. Erantzukizunpeko adierazpena, iragarki honetan jasotako ereduaren arabera (10.4 puntua), esleipenduna SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeke debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.
- VII. Erantzukizunpeko adierazpena, iragarki honetako 10.5 puntuan jasotako ereduaren arabera, baldin eta esleipendunak, eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeke, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu.
- VIII. Esleipendunak behar bezala baimendutako aseguru entitate batek emandako ziurtagiri bat aurkeztuko du, erantzukizun zibileko aseguru poliza bat kontratatu izana egiaztatuko duena, kontratatutako zerbitzua ematearen ondorioz hala hirugarrenei nola AZTIri eragindako kalteak bermatzeko. Poliza hori indarrean egon beharko da kontratua gauzatzen den bitartean, eta AZTIk hala eskatzen duenean egiaztatuko da hori.

Polizaren zenbatekoa, gutxienez, obraren esleipenaren zenbatekoa izango da, BEZik gabe. Eta kontratua formalizatzean polizaren kopia aurkeztu beharko da, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea egiaztatzen duen agiriarekin eta hura ordaindu izanaren agiriarekin batera.
- IX. Beren lanbidean jarduteko legez dagokion elkargo profesionalen izena emanda egon behar duten profesionalak egoera hori egiaztatu beharko dute elkargoko azken kuota ordaindu izanaren egiaztagiria edo elkargo profesionalak berak emandako ziurtagiria aurkeztuz, non egoera hori adieraziko den, elkargokide zenbakia barne.

Esleipendunak iragarki honetan eskatutako dokumentazioa gehienez ere 20 eguneko epean aurkeztuko du, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita, eta kontratua dokumentu pribatu bidez formalizatuko da, hura jaso eta 30 egun balioduneko epean. Dena den, esleipendunak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak.

Kontratu izaera izango dute, eta esleipendunak nahitaez bete beharko ditu, kontratuak

irauten duen bitartean, esleipenaren ondoren formalizatzen den kontratuaz gain, honako agiri hauek:

- Iragarki hau.
- Gauzatze proiektuak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintza.
- AZTIren hornitzaileen jokabide kodea.

Baldintzen iragarkiko omisioek ez dute esleipenduna bere betebeharretatik salbuesten; aitzitik, iragarkian eta gainerako testu lotesleetan osoki eta behar bezala zehaztuta baleude bezala gauzatuko da kontratua.

AZTIk edozein unetan eta edozein bitartekoren bidez kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du ea kontratu betebeharrak zuzen betetzen ari diren eta kontratua egoki gauzatzen ari den. Esleipendunak ezin izango ditu oztopatu AZTIk egindako ikuskapen eta kontrol lanak.

7.2 Obren zuzendaritza fakultatiboa, bai obra zuzendaritza, bai obra gauzatzeko zuzendaritza eta bai segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa obrak gauzatzen diren bitartean, arlo horretan eskumena duten teknikariek egingo dituzte, eta horretarako eskumen profesionalak izango dituzte, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearekin eta aplikatu beharreko gainerako araudiarekin bat etorritik. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen (LOE) arabera, hautatutako talde teknikoak gutxienez arkitekto bat izango du, lege horrek eskatutako eskuduntzei dagokienez egokitzat jotzen dituen teknikariek lankidetzan.

Obren Zuzendaritza Fakultatiboa (ZF) agente hauek osatuko dute, eta LOEk bakoitzari esleitzen dizkion eginkizunak beteko dituzte:

- Obra Zuzendaritza (OZ).
- Obra Gauzatzeko Zuzendaritza (OGZ)
- Segurtasun eta Osasuneko koordinatzailea obren fasean (SOKO).

Agente horietako bakoitza, aldi berean, zenbait teknikarik osatu ahal izango dute; kasu horretan, beren erantzukizuna modu solidarioan garatuko dute. Nolanahi ere, agente bakoitza pertsona desberdinek hartuko dute beren gain.

ZFko kide guztiek eduki beharko dute LOEk eskatzen duen eta funtzioak betetzeko gaitzen duen titulazio profesional eta akademikoa, bai eta iragarki honen xedea behar bezala

gauzatzeko eskatzen den esperientzia ere.

Agenteei dagokie, adierazpen gisa eta ez modu mugatzailean:

- Obren zuzendaritza fakultatiboa (ZF)

a) Sor daitezkeen gorabehera tekniko guztiak ebatzea eta gauzatze proiektuaren exekuzioa behar bezala interpretatzeko beharrezko argibideak eta jarraibideak ematea, eta, obra amaitu ondoren, obren harreran, azken neurketan eta azken ziurtapenean parte hartzea.

b) Onartutako gauzatze proiektua garatzeko eskatzen den dokumentazio guztia prestatzea, proiektu horrek bere dokumentuetan dituen eraikuntza soluzio guztiak erabat definitzeko eta obran behar bezala jartzeko. Era berean, gauzatze proiektuan egin beharreko aldaketak egitea, obrak behar bezala egiteko.

c) Kontratarekin koordinatzea eta AZTIri laguntzea hirugarrenen aurrean (administrazio erakundeak, Autonomia Erkidegokoak, Udala, zerbitzu konpainiak, etab.) egin beharreko kudeaketetan, obrei dagokienez, eta, bereziki, funtzionatzeko beharrezkoak diren lizentziei, sarbide baimenei, hartuneei, loturei, isurketei eta abarrei dagokienez. ZFak unean-unean emango dio AZTIri kudeaketa horien egoeraren eta garapenaren berri.

d) Aplikatu beharreko indarreko legedian ezarritako betebeharrak betetzea.

- Obra Zuzendaritza (OZ).

a) Obraren garapena gidatzea alderdi teknikoetan, estetikoetan, hirigintzakoetan eta ingurumenekoetan, gauzatze proiektuarekin, eraikuntza lizentziarekin eta gainerako nahitaezko baimenekin eta kontratuaren baldintzekin bat etorritik, proposatutako helburura egokitzen dela ziurtatzeko.

b) Gauzatze proiektua ezagutzea, edozein gorabehera, desbideratze eta/edo kontsulta konpontzeko, eta horretarako behar den dokumentazio osagarria prestatzea. Ildo horretan, behar adina bisita egingo ditu obrara, eta Aginduen Liburuan jasoko ditu bai bisitak bai akatsak zuzentzeko edo obrak egokitzeko emandako aginduak.

c) SOKOaren zeregina etengabe eskatzea eta babestea, prozesu guztiak langileak babesteko neurri egokiekin egiten direla egiaztatzea.

d) Obra lizentziaren existentzia zaintzea eta baldintzak betetzea, eta lizentzia hori betetzeko behar diren jarraibideak ematea kontratatari.

e) Hilero txosten bat idaztea, obren bilakaera, gertatutako gorabeherak eta aldaketak edo gauza osagarriak egiteko beharra jasota.

f) Obraren zehar ematen diren ziurtagiri partzialak osatzea, bai eta gauzatutako obra

unitateen azken ziurtagiria ere.

- g) Obrak dirauen bitartean, gauzatze proiektuaren edozein aldaketa jaso eta behar den lekura helaraziko da, obrak amaitzean plano bilduma bat egon dadin, non zehazki islatuko den zein den trenkaden banaketa, aldaketaren bat izan duten, kutxatilen, erregistroen eta abarren kokapen zehatza, etorkizuneko mantentze lanak errazte aldera. Planoak gauzatze proiektura batuz joango dira, eta obrek aurrera egin ahala garatuko dira, ezkutuan geratzen diren lan guztiak dokumentu bidez jasota gera daitezten.
- h) Zuinketa akta edo obra hasierakoa eta obra amaierako ziurtagiria sinatzea, eta gauzatutako obra unitateen ziurtagiri partzialak eta azken likidazioa osatzea, hala badagokio, nahitaezkoak diren oniritziekin.
LOEk eta profesionaloi aplikatu beharreko gainerako arauak agindutako gainerako funtzioak.

- Obra Gauzatzeko Zuzendaritza (OGZ).

- a) Obraren gauzatze materiala gidatzeko eta eraikitakoaren/aldatutakoaren eraikuntza eta kalitatea kualitatiboki eta kuantitatiboki kontrolatzeko funtzio teknikoak.
- b) Gauzatze proiektuaren dokumentu guztiak zehatz-mehatz ezagutzea, bai eta OZk hura interpretatzeko ematen dituen jarraibideak ere, eta, horretan oinarrituta, obrak behar bezala egiteko behar diren argibideak ematea kontratistari.
- c) Gauzatzearen kontrol sistematikoa (gauzatzen ari diren unitate guzti-guztiak egiaztatzen dira), bai garrantzi bereziko obra zatietan bai ezkutuan geratu behar direnetan, edo laginketa bidez, akats bat erraz detektatu eta zuzentzeko modukoa denean. Eraikuntzako akatsen bat gertatzen bada edo eska daitekeen kalitatea falta bada, kontratistari berehala ohartaraziko zaio –beti idatziz–, akatsa zuzen dezan, eta OZri, berriz, jasota gera dadin.
- d) Kontratistari aldeztu aurretik informazioa eskatzea obretan esku hartuko duten azpikontratei buruz, esku hartze hori OZrekin batera onartzeko, beharrezko baldintzak betetzen badira.
- e) Gerora ezkutuan geratuko diren elementu guztiak jasoko dituen argazki erregistro bat edukitzea. Argazkiek erreferentziaren bat izango dute dagokien elementua, eskala patroia eta gauzatze data identifikatzeko. Argazkiak, egindako obraren dokumentazioarekin batera, AZTIri emango zaizkio, behar bezala sailkatuta.
- f) LOEk eta aplikatu beharreko gainerako arauak agindutako gainerako funtzioak.

- Segurtasun eta Osasuneko koordinatzailea obren fasean (SOKO).

SOKOaren funtzioa betetzeko gaitzen duten titulazio akademiko eta profesionalak arkitektoarenak, arkitekto teknikoarenak, ingeniariarenak eta ingeniari teknikoarenak izango dira, bakoitzaren eskumenen eta espezialitateen arabera.

SOKOaren funtzioak izango dira urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan jasotakoak, indarreko legerian xedatutakoak eta honako hauek:

- Obra hasi aurretik segurtasun eta osasun plana onartzea, bai eta obrak gauzatu bitartean sortzen den edozein aldaketa ere.

- Obren jarduerak koordinatzea, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek eta langile autonomoek modu koherente eta arduratsuan aplikatu ditzaten Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotako prebentzio ekintzaren printzipioak, bai obra gauzatzen den bitartean, eta baita, bereziki, honako zeregin edo jarduera hauetan ere:

- ✓ Obraren ordena eta polizia.
- ✓ Lan eremuen kokapenak, sarbideak eta barne zirkulazioak.
- ✓ Materialen manipulazioa eta bitarteko osagarrien erabilpena.
- ✓ Behin-behineko instalazioen aldizkako kontrola.

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean aurreikusitako enpresa jardueren koordinazioa antolatzea.

- Lan metodoen aplikazio zuzena kontrolatzeko ekintzak eta funtzioak koordinatzea.

- Beharrezko neurriak hartzea, baimendutako pertsonak bakarrik sar daitezten obretara.

- Obretako langileek segurtasunari eta osasunari buruzko prestakuntza nahikoa eta egokia jaso dutela egiaztatzea, agindutako zereginen arabera, eta arrisku larri eta espezifikoko eremuetara sartzen ez uztea.

- Gorabeheren Liburua zaintzea eta, obrak egin bitartean segurtasun eta osasun neurriak betetzen ez badira, bertan jasota uztea.

- Eragindako kontratistari eta langileen ordezkariari modu frogagarrian jakinaraztea Gorabeheren Liburuan egindako oharra.

- Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaitzari, 24 orduko epean, Gorabeheren Liburuan egindako oharren kopia bat bidaltzea, alegia, liburu horretan horretarako ahalmena duten pertsonak alde aurretik idatzitako oharazpenak ez betetzeari buruzko oharren kopia bat, bai eta, langileen segurtasunerako eta osasunerako berehalako arrisku larria dela-eta, obra eremuak edo, hala badagokio, obra osoa geldiarazteko emandako aginduei buruzkoak ere.

7.3 Onartutako Lan Programan oinarrituta, ZFak, kontratistaren ordezkariak eta AZTIko ordezkari batek zuinketa egiaztatuko dute, eta emaitzaren akta egingo dute, interesdun guztiek sinatuta.

Obrei hasiera ematea eragozten duten arrazoiak gaindituz gero, eta OZk obrak hastea baimentzeko erabakia hartuz gero, kontratistari behar bezala jakinarazita, obrak hasi egingo dira, eta jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da gauzatzeko epea.

7.4 ZFak proiektua idaztean aurreikusi ez diren ustekabeko arrazoiengatik bakarrik egin ahal izango ditu aldaketak gauzatzeko proiektuan. Kasu horretan, AZTIk dena delako aldaketa onartu ondoren, OZk idatzi eta sinatuko du, AZTIrentzat kostu gehigarriak izan gabe, eta dokumentuen kopia bat kontratistari emango dio.

Larrialdien kasuan bakarrik agindu ahal izango du OZk obra unitateak egitea, baldin eta ezinbestekoak edo nahitaezkoak badira lehendik egindako obren zatiak babesteko edo bermatzeko, edo hirugarrenei berehalako kalteak egitea eragozteko. Kasu horretan, OZk berehala jakinarazi beharko dio AZTIri, neurri egokiak har ditzan.

AZTIk onartu egin beharko ditu, betiere, larrialdi arrazoiaren ondorioz egiten ez diren aldaketak, eta obraren kontratistak erantzukizuna hartuko du; horrek ez du esan nahi, ordea, ZFko arduradunek erantzukizunik izango ez dutenik.

AZTIk ahalmena izango du kontratistak egiten ez dituen aldaketak hirugarren batekin kontratatuzko. Horretarako, kontratista berriak sarbidea izango du obra gauzatzeko.

7.5 AZTIk erabakitzen badu obra aldi baterako, partzialki edo osoki etetea edo behin betiko etetea, dagokion etete akta egin beharko da, eta OZk eta kontratistak sinatu beharko dute. Akta horretan, etenak eragindako obra zatia edo zatiak edo zati guztiak jasoko dira.

7.6 ZFak bilerak egingo ditu aldian-aldian, eta kontratistak, AZTIk edo ZFak eskatu ahal izango ditu, Kontratistarekin eta AZTIrekin, obran hala eskatzen duten alderdiak jorratzeko. Bilera horien akta OZk egingo du.

7.7 Kontratistak edo haren ordezkariak, berrogeita bost egun baliodun lehenago, idatziz jakinaraziko dio ZFari obrak amaitzeko aurreikusitako eguna. AZTIk ezarritako datan, kontratista, AZTIko ordezkari bat, OZ eta OGZ elkartu egingo dira, obrak hartzeko akta egiteko.

7.8 Obra amaitu ondoren, OZ eta kontratista bildu egin beharko dira neurketa orokorrerako. Alderdiek datuak hartuko dituzte eta ZFak egingo du neurketa orokorra. Neurketa orokorra egiteko, zuinketa egiaztatzeko datu osagarri gisa, obra egin bitartean egindako zuinketa eta neurketa partzialak, Gorabeheren Liburua, halakorik balego, Aginduen Liburua eta OZk eta kontratistak beharrezkotzat jotzen dituzten beste guztiak erabiliko dira. OZk, OGZk eta kontratistak sinatu beharko dute akta.

Neurketak behar besteko zehaztasuna izango du neurtutako unitate bakoitzaren neurketa lerro guztiak obraren eta planoen gainean identifikatu ahal izateko. (SOKOak eman beharko duen neurketa sartuko du baloratutako zerrenda orokorrean).

Azken ziurtagiria egiteko epea II. eranskinean jasotako iragarkian ezarritakoa izango da, eta eperik ezartzen ez bada, epea bi hilabetekoa izango da, obrak hartzen direnetik zenbatzen hasita; kontratistari adostasuna emateko edo eragozpenak adierazteko emandakoa, berriz, hogeita hamar egunekoa izango da, jakinarazpena egiten zaionetik zenbatzen hasita.

ZFak azken ziurtagiria egingo du, eta, besteak beste, gauzatze proiektuaren aurreikuspenei dagokienez izandako aldaketak justifikatzeko memoria bat jaso beharko du.

7.9 Aginduen eta Laguntzen Liburua, non OZk eta OGZk obrak egin bitartean egon diren bisitak, gorabeherak eta aginduak idatziko dituzten. Horiek eta Segurtasun eta Osasun Gorabeheren Liburua behar bezala zainduta egongo dira obran.

7.10 OZak Eraikinaren Liburua egin eta izenpetuko du, AZTIri emateko. Liburu horrek honako hauek jasoko ditu gutxienez:

- Obra proiektua, onartutako aldaketekin.
- Obraren harrera akta..
- Esku hartu duten agenteen zerrenda.
- Eraikina eta haren instalazioak erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak. Atal honetan, garrantzitsua da eraikina eta bertako instalazioak mantentzeko eta bertan egin beharreko eragiketak planifikatzeko plan bat sartzea.
- Obra amaierako ziurtagiria..
- Kalitate kontrolaren ziurtagiria.
- Harrera kontrolaren dokumentazioa.
- Amaitutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.
- Eraikinaren instalazio termikoen dokumentazioa.
- Azpikontratazio liburua.
- Eraikinaren ibilbidean erreferentziazkoa den dokumentazio garrantzitsua.

Dokumentazio guztia paperean nahiz euskarri digitalean emango da.

7.11 ZFak LOEn eta erantzukizunei eta bermeei buruz indarrean dagoen gainerako legedian xedatutakoa beteko du.

7.12 Kontratua gauzatzean egindako azterlan eta dokumentu guztiak AZTIren jabetzakoak izango dira; AZTIk osoki edo partzialki erreproduzitu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, eta lanak egin dituen esleipendunak ezin izango du horren aurka egin. Esleipendunak ezin izango ditu erabili edo zabaldu kontratu hau gauzatzearen ondorioz egindako azterlan eta dokumentuak, ez osoki ez partzialki, ez zuzenean ez aterakin gisa, AZTIren berariazko baimenik gabe. Kontratuaren xedea jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea bada, kontratistak AZTIri lagako dio.

7.13 Esleipendunak, datuen tratamenduaren arduradun gisa, eta bere langileek, integritate eta konfidentzialtasun printzipioak betez, eskura dituzten datu pertsonalak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte, baita baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren eta haren galeraren, suntsipenaren edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa bermatzeko moduan ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren bidez onartua) ezarritakoaren arabera egokiak diren neurri teknikoak edo antolaketa neurriak aplikatuz.

8. BESTE BATZUK

- Esleipendunak (erakunde juridikoa, erakunde juridikoen elkartea, pertsona indibidualak, pertsonen elkartea...), baita lizitazioari erantzuteko edo lizitazioaren xedea betetzeko parte hartzen duten beste erakundeek edo pertsonak ere, hautagaitza aurkeztu duten edo ez alde batera utzita, konpromisoa hartzen dute lortutako informazioaren konfidentziasuna gorde eta mantentzeko eta sekretu profesionala gordetzeko, eta, beraz, ezagutzen eta lortzen duten informazioa ez diete parte hartu ez duten langileei edo hirugarrenei erakutsi, jakinarazi edo ezagutaraziko.
- Informazio konfidentzialtzat jotzen da esleipendunak eta/edo AZTI Fundaziotik kanpoko erakunde edo pertsonak, lizitazioari erantzuteko edo kontratua gauzatzeko, modu bisualean, ahoz, zuzenean edo zeharka, lortzen duten edozein informazio, besteak beste, informazio zientifiko, tekniko, finantzario, legal, fiskal eta komertziala, negozio eredu eta estrategiak, “*know-how*” delakoa, bezero eta bazkide posibleen izenak, proposatutako edo azterketa fasean dauden edonolako proiektuak eta eragiketak, datuak, algoritmoak, txostenak, planoak, merkatu proiektzioak, laneko analisiak eta dokumentuak, bildumak, konparazioak, azterketak eta, oro har, eskuratutako informazio guztia, bai kontratua gauzatu aurretik lortutakoa, bai ondorengoa.
- Konfidentziasun betebeharrak eta informazio konfidentziala ez erabiltzeko betebeharrak indarrean jarraituko dute informazio konfidentziala jende guztiak dakien gauza ez den bitartean, eta egoera hori ez da izan behar informazio konfidentziala eskuratu duten esleipendunak eta/edo erakunde edo pertsonak beren betebeharrak bete ez izanaren ondorio.
- Esleipendunari dagokionez, kontratua amaitu aurretik, bitartean edo ondoren eskuratu duen informazio konfidentziala isilpean gordetzeko eta ez erabiltzeko betebeharra ez da iraungiko kontratua betetzen denean. Esleipendunak kontratua gauzatzean, modu independentean edo AZTIrekin batera, lortutako edo sortutako informazio konfidentziala (lortutako emaitzak) edo horren zati bat bakarrik erabili ahal izango du kontratua garatzeko, eta ez du beste erabilerarik egingo.

Esleipendunak modu erreserbatuan erabiliko du informazio konfidentziala eta ez du zabalduko ez jakinaraziko, eta esleipendunarekin duten harremanagatik, informazio hori eskura eduki dezaketen edo eduki behar duten bere langileei, bazkideei,

azpikontratatuerei eta beste edozeini informazioa eskuratzeko sarbidea murriztu beharko die, konfidentzialtasuna betetzeko beharra dutela ohartarazita. Esleipendunaren langileek, bazkideek, azpikontratatuak edo hark emanda informazio konfidentzialaren berri izan duten pertsonak betebeharrak hori betetzen ez badute, esleipenduna izango da erantzulea.

Nolanahi ere, erabat debekatuta dago kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden informazio, datu eta dokumentuetara sartzea, eta nahitaezkoa da ezagutzen direnak isilpean gordetzea.

Esleipendunak ezin izango du informazio konfidentziala erabili, ez zuzenean, ez hirugarrenen bidez: a) edozein eragiketa komertzialetan hasi, eskaini, negoziatu, kontratatu edo sartzeko, edo horrekin lor daitekeen edozein onura lortzeko b) produktuak, soluzioak, zerbitzuak eta know-howa garatu eta, hala badagokio, teknikoki hobetzeko c) patenteen bidez, erabilgarritasun modeloen edo jabetza intelektuala eta industrialak babesteko AZTIren beste edozein sistemaren bidez, produktuak, soluzioak, metodoak eta abar babesteko.

- Lizitazio honen kontratua gauzatzearen ondorioz esleipendunak edo horrek eskatuta diharduen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok –laneko lotura izan edo ez– lortutako emaitzen gaineko eskubide guztiak AZTI Fundazioaren titulartasunpekoak eta bakarrik horren menpekoak izango dira, muga geografikorik edo denborazko mugarik gabe, emaitzatzen hauek hartuta: produktuak (letra tipoaren kodea, algoritmoa, softwarea, hardwarea, plataforma digitala, aplikazioak, etab.), zerbitzua (kontsultoretza, aholkularitza, digitalak, etab.), dokumentazio teknikoa edozein formatutan (txostenak, fluxu diagramak, datuak, etab.), soluzioak (digitalak, software plataforma, programak, aplikazioak, etab.) eta/edo informazioa, horien aterakinak edo erreplikak barne. Emaitzen, sortutako ezagutzaren edo sor daitekeen edozein jabetza intelektual edo industrialen edozein erregistroren gaineko ustiapen eskubideak eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo horien ondoriozko emaitzen, ezagutzaren edo jabetza intelektual edo industrialaren erregistroaren gainekoak AZTI Fundazioarenak izango dira, eta, beraz, edozein aktibo ukigarri eta ukiezinen ustiapena, edozein dela ere horren forma edo izaera, babestuta egon edo ez, baita horien ondoriozko eskubide guztiak ere, AZTI Fundazioarenak izango dira.
- Esleipendunak ezin izango du AZTI Fundazioak emaitzen gaineko edozein eskubide eratorri babestearen aurka egin, eta ezin izango du emaitzarik zabaldu edo argitaratu, salbu eta AZTI Fundazioak baimen idatzia ematen badu eta baimen horren baldintzak betez. AZTI Fundazioak edozein erregistro bulegotan emaitzak babestea edo erregistratzea erabakitzen badu, egileen egiletza aitortuko da, bai

AZTI Fundaziokoak badira, bai enpresa esleipendunekoak badira, baldin eta erregistratutako garapenean parte hartu badute.

- AZTI Fundazioak eskubidea izango du emaitzak aldatu, transferitu, entregatu, banatu edo hirugarrenei banatzeko, helburu komertzialekin edo ez, edo behar duen edozein jarduera egiteko. Halaber, esleipendunak AZTI Fundazioari emaitza osoak eman beharko dizkio (adibidez, letra tipoaren kodea, etab.), eta AZTIk, horien jabe den aldetik, zuzenean edo hirugarrenen bidez, emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sustatu ahal izango ditu, eta hobekuntzak eta hortik eratorritakok AZTIren jabetza eskusiboa izango dira.
- Esleipendunak aitortzen du, kontratua gauzatu aurretik (AZTI Fundazioaren aurretiazko ezagutza), AZTI Fundazioa hauen jabe dela: produktuaren edo soluzioaren ideia eta kontzeptua/prototipoa, produktuak edo soluzioak izan behar duen funtzionaltasunaren, eraginkortasunaren eta interkonektibitatearen diseinua, datuak (datu motak, jatorria, kudeaketa eta tratamendua, etab.) eta know-howa. Horrela, AZTI Fundazioak, aurretiazko ezagutzaren eta emaitzen titularra den aldetik, zuzenean edo zeharka ustiatu ahal izango ditu, berak iritzi bezala. Esleipendunak ezin izango ditu, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, emaitzak ezein pertsona fisiko edo juridikori transferitu, ez bitarteko elektronikoen bidez ez beste modu batean, eta ezin izango ditu emaitzak aldatu, itzuli, alderantzizko ingeniariaritzara aplikatu, deskonpilatu, saldu, transferitu, azpilizentziatu, argitaratu, zabaldu edo kontratua gauzatzean lortutako emaitzetan oinarritutako lan eratorririk sortu. Esleipendunak, beraz, ezin izango du AZTI Fundazioaren negozio estrategia mugatu dezaketan emaitza lehiakorak (produktuak, soluzioak, zerbitzuak, dokumentazio teknikoa) merkatura eramateko ekintzarik egin.
- Emaitzak erabiltzeko beharrezkoa denean (adibidez, letra tipoaren kodea, softwarea, aplikazioak, etab.), esleipendunak kontratu honen aurretiko ezagutzaren lizentzia ez-esklusiboa eta besterenezina emango dio AZTI Fundazioari, lizitazioan ezarritakoaren gaineko gainkosturik gabe. Kontratua amaitzean entregatutako emaitzak (produktuak, soluzioak...) guztiz funtzionalak, operatiboak eta beste batzuekiko independenteak izan behar dira, eta ez dute inolako mugarik ekarriko emaitzen erabilerari dagokionez, ezta erabiltzeko kostu gehigarriak ere.
- Lizitazio honetan informazio konfidentzialaren konfidentzialtasunari eta ez erabiltzeari buruz ezarritako baldintza guztiak, baita jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei eta emaitzen eta sortutako ezagutzaren gaineko ustiapen eskubideei dagokienez ezarritakoak ere, gailendu egingo dira erakunde esleipendunarekin ondoren sinatzen den eta lizitazio honetan ezarritako baldintzekin gatazkan egon daitekeen edozein akordioaren gainetik.

- Esleipendunak onartzen du AZTI Fundazioaren izenaren edo deituraren titulartasuna eta merkatuan dituen produktu edo zerbitzuen bereizgarri diren zeinu bereizgarri guztiena AZTI Fundazioarenak direla eta hala izaten jarraituko dutela. Esleipendunak ez du inolako ekintzarik egingo, ezta AZTI Fundazioaren zeinu bereizgarrien baliozkotasunari eragin diezaiokeen neurririk hartuko ere, eta konpromisoa hartzen du ez erregistratzeko edo eskatzeko, ez bere izenean ez hirugarren baten alde, AZTI Fundazioaren izen komertzial, domeinu izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarririk edo horien antzekorik, baldin eta AZTI Fundazioaren jarduera, prestazio, produktu edo establezimenduarekin nahasmendurik sor badezakete.

9. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFZ: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzea edo ezabatzea eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatzita. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu kontrol agintaritza eskudunari".

Esleipendunak datu pertsonalen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasuneko bete beharko ditu.

10. ERANSKINAK

10.1 Gauzatze proiektuen eranskina

Konfidentzialtasun akordioa behar da (1. puntua)

10.2 II. eranskina. Pasaia, Derio eta Sukarrietako zentroak birmoldatzeko obren lizitazioaren iragarkia

10.3 AURREKONTUAren ETA ESKAINTZA EKONOMIKOAreneranskina

..... jauna/andrea,..... enpresakoa (helbide soziala:.....), enpresa horren izenean eta kontura jardunez, (herria)..... (e)ko lanei buruzko proiektuaren dokumentu guztiak ondo ezagutu ondoren, lan horiek egiteko konpromisoa hartzen dut,..... (e)ko prezioan (..... €). (Aurrekontua erantsi da)

Prezinoa egungo baldintza ekonomikoetara eguneratuta dago eta ez da berrikusiko.

Konpromisoa hartzen dut dagozkion lanak kontratu dokumentuen arabera egiteko, obra programan adierazitako epeetan.

Ziurtatzen dut enpresak behar bezala egiten dituela Legeak xedatutako zergen eta kuoten ordainketak.

Ordaintzeko modua lizitazio iragarkian aurreikusitakoa izango da.

Eta jasota gera dadin, hau sinatzen dut(e)n,(e)koren
..... (e)(a)n.

10.4 Erantzukizunpeko adierazpenaren ereduaren eranskina.

[...] jaunak/andreak (helbidea: [...] eta NAN zk.: [...]), bere izenean edo [...](r)en ordezkari gisa (helbidea: [...] eta NAN edo IFK: [...]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duenak, AZTI FUNDAZIOAK ("**AZTI**") esleitu gabe dauden Pasaia, Derio eta Sukarrietako zentroak birmoldatzeko obretarako zuzendaritza fakultatiboa (Obra Zuzendaritza (OZ), Obra Gauzatzeko Zuzendaritza (OGZ) eta Segurtasunaren eta Osasunaren Koordinazioa Obra gauzatzeko fasean (SOKO) prozedura irekiaren bidez kontratatzeko lizitazioaren berri jasota, honako honen bidez:

ADIERAZTEN DU

Lehenengoa. - Pasaia, Derio eta Sukarrietako zentroak birmoldatzeko obretarako Zuzendaritza Fakultatiboa (Obra Zuzendaritza (Obra Zuzendaritza - OZ, Obra Gauzatzeko Zuzendaritza - OGZ eta Segurtasunaren eta Osasunaren Koordinazioa Obra gauzatzeko fasean - SOKO) xede duen kontratua esleitzeko lizitazioaren berri izan duela, eta, era berean, lizitazioan jarraitu behar den dokumentazioa ezagutzen duela eta berriaz onartzen eta bere egiten duela.

Bigarrena. - Eskaintza hau aurkezteko egunean, ez duela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Hirugarrena. - Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Laugarrena. - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela baja eman aipatutako zergaren matrikulan.

Bosgarrena. - Bermatzen duela obra behar bezala egiteko gaitasuna duela bai baliabide teknikoei bai giza baliabideei dagokienez, obra gauzatzeko baldintzei buruz eskatutako informazio guztia eman zaiola eta ondo baino hobeto ezagutzen duela, eta hornitutako planoak eta egin beharreko lanak beharrezkoak direla kontratu hau, bere alderdi guztietan, behar bezala eta doitasunez betetzeko.

Seigarrena. - Baduela kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeen gaikuntza enpresa eta lanbide arloan.

[...](e)n, [...](e)ko [...]ren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

10.5 Erantzukizunpeko adierazpenaren ereduaren eranskina, baldin eta esleipendunak, eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu.

*[OHARRA: kasu hauetan baino ez da aurkeztu behar: esleipendunak eskaintzarik onena aurkeztu badu, eta esleipendunak, eskatzen den kaudimena eta/edo behar diren baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimen eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu. **Hirugarren erakundeak bete behar du**]*

[...] jaunak/andreak (NAN zk.: [...]) [...] enpresaren legezko ordezkaria den aldetik, [...] IFK [...] duenak, adierazi du bere irismen osoan ezagutzen dituela esleitzeke dauden Pasaia, Derio eta Sukarrietako zentroak birmoldatzeko obretarako Zuzendaritza Fakultatiboa (Obra Zuzendaritza - OZ, Obra Gauzatzeko Zuzendaritza - OGZ eta Segurtasunaren eta Osasunaren Koordinazioa Obra gauzatzeko fasean - SOKO) xede duen kontratua esleitzeko lizitazioaren baldintzak (aurrerantzean, "**Kontratua**"), non [...] *esleipendunak* (enpresa *esleipendunaren* izena) parte hartzen baitu; eta adierazi du, halaber, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartzen duela, eta AZTI FUNDAZIOAK berariazko baimena eman beharko duela hura ordeztu edo aldatuko bada.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Idazki hau AZTI FUNDAZIOAri aurkezteak konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu.

[...](e)n,
[Sinadura]

[...](e)ko

[...]ren

[...](e)(a)n.